

Osasuna ♦ Azken lau partiduak berdindu ondoren, hiru puntuak eskuratu nahi ditu

Garaipenaren bila

Trzeciakék jokatuko du, eta baliteke Tikok Alfredoren lekua betetzea

18:00 (ETB1)	
OSASUNA-LLEIDA	
Martin	Corominas
1 Lopez Vallejo;	25 Mora;
4 Mateo	19 Navarro
16 Josetxo	22 Alvarez
3 Iban;	4 Radulovic
14 Orbaiz	8 Roa;
22 Goikoetxea	2 Fran
8 Palacios	11 Moreno
10 Tiko	14 Simplicio
20 Matito;	16 Stolica;
17 Trzeciak	7 Escoda
9 Ziganda	9 Ilie
Epailea • Gonzalez Vazquez	
Zelaia • Sadar	

Eduarne Elizondo / Iruñea

OSASUNAK Lleidaren kontra jokatuko du, gaur, Sadarren, 18:00etatik aurrera. Gorritxoaren entrenatzaile Enrique Martinek hemeretzi jokalaria deitu ditu gaurko norgehiagokarako, eta, hasierako hamaikakoan aldaketa bat edo bi egingen ditu: batetik, ziur da Markovicen ordez Trzeciak poloniarak jokatuko duela. Martinek Markovic zelairatu zuen joan den igandean Logroñesen aurka, poloniarra bere herriko selekzioarekin zegoelako.

Trzeciak herenegun itzuli zen Iruñera, eta, sasoi onean, Poloniako selekzioarekin hiru partidu jokatuko ondoren. Hori dela eta, Markovic eserlekuan uztea, eta Zigandarekin batera Trzeciak zelairatzea



Trzeciakék —17 zenbakiarekin, ezkerretara— jokatuko du Zigandarekin Osasunaren aurrealdean.

erabaki zuen, atzo, Osasunako entrenatzaileak.

Bestalde, baliteke Alfredoren ordez Tikok jokatzea. Orain arte ia astero izan du Alfredok leku bat Martinen hamaikakoan, baina azken jardunaldietan sasoia galdu duela onartu du jokalaria berak; nekatuta dagoela erran du; hori dela eta, baliteke Martinek Tiko zelairatzea haren ordez; nafarra, hain zuzen ere, ongi aritu da Ligan jokatutako minutuetan. Gaur bertan argituko ditu Martinek zelaierdiari

dagokionez dituen zalan-tzak. Goikoetxeak, halaber, hasieratik jokatuko du, joan den igandean bezala.

Hiru puntuen bila

Bederatzi jardunaldi darama Osasunak partidu bakar bat ere galdu gabe; azken lau norgehiagoketan, ordea, berdinketa besterik ez dute lortu gorritxoek. Hori dela eta, Lleidaren aurka garaipena eta hiru puntuak lortzen saiatuko dira Martinen jokalaria, gaur, Sadarren. «Lei-

daren aurkakoa oso partidu garrantzitsua da guretzat, hiru puntuak lortzen baidugu aurrera egingen baitugu gure bidean; zerrendan gora egiteko aukera ona da», azpimarratu zuen gorritxoaren entrenatzaileak, atzo, entrenamendua amaitu ondoren.

Azken egunotan botatako elurra dela eta, Taxoaretik kanpo entrenatu izan dute gorritxoek; Lleidaren aurka partidurako, hala ere, Sadar egoera onean egonen dela ziurtatu du Javier Primo arduradunak.

Eibar ♦ Barasoainek Arriola eta Guruzetaren artean erabaki beharko du Artetxeren lekurako

Behar-beharrezkoa du irabaztea

18:00	
EIBAR-LAS PALMAS	
Barasoain	Castellano
1 Iru;	1 Cicovic;
5 Garmendia	2 Alex
4 Arce	6 Herrera
3 Bastida	14 Victor
20 Ocio	4 Sarasua
23 Iturrino;	5 Paqui;
10 Bixente	25 Robaina
17 Kortina	16 Josico
24 Guruzeta;	18 Someways;
15 Cuellar	15 Renaldo
19 Aitor Agirre	7 Eloy
Epailea • Muñoz Juste	
Zelaia • Ipurua	

Mikel Arrillaga / Eibar

JOAN den jardunaldian Gijongo Sportingin kontra 3-1 galdu ondoren, behar beharrezkoa da Las Palmasen kontrako garaipen gaur Eibarrentzat. Ez da partidu erraza izango, Las Palmas talde indartsua baita. Laugarren lekuan kokatua, lehen mailara begira daude Kanariar irletakoak. Eibartarren artean, Oscar Artetxe izan da azken unerarteko zalantza. El Molinon baja izan zen eta gaur ere ez du jokatuko seguruenik.

Artetxeren lekuan Gaizka Garitanok jokatzea litzateke normalena, baina hau ere ez dago jokatze moduan, oraindik lesiotik errekuperatu gabe dagoelako. Hori dela eta, Barasoainek, Arriola eta Guruzetaren artean erabaki beharko du Artetxeren lekurako. Aurrekaldean Kikoren baja izango du Eibarrek. El Molinon zelaian txartel gorria ikusi zuen Galiziarrek, eta partidu bateko zigorra bete beharko du. Bestalde, Pello Matxon abenduan Eibarrek egindako fitxaketetako bat,

jokatze moduan dago dagoeneko. Etorri zenetik minduta egon da, baina azken egunotan normaltasunez egin ditu entrenamendu saioak eta entrenatzailearen esanetara dago.

Kanariarrak ez dira galtzera etorriko. Talde indartsua dute eta garu irabaziz gero, igoera postuetan sartzeko aukeran diran, Malagak eta Numanciak egiten dutenaren arabera. Atzean sendo egoteko asmoarekin irtengo dira, kontraerasoan golen bat egiteko.

hor zain

Iturralde izango da arbitro bihar Barcelona-Real Madrid partiduan

Eduardo Iturralde Gonzalez arbitro laudiotarrari tokatu zaio bihar arratsaldeko Barcelona-Real Madrid partidu erakargarria zuzentzea. Azken egunotan hainbat aldiz azaldu da hura Espainia eta Kataluniako komunikabideetan.

Espainiako Poliziak bukatutzat jo du 'Zabaleta kasuko' ikerketa

Aitor Zabaletaren hilketa dela eta, Espainiako Poliziak esan du bukatu dela bere lana eta ez duela segituko ikertzen. «Justiziaren esku utzi ditugu geure ustez inplikatuak diren guztiak», esan zuen atzo Poliziako zuzendari nagusiak, Juan Cotinok.

Futbola «erlijio moderno baten traza» ari da hartzen, teologo baten arabera

Jutta Burggraf teologo alemaniarak hiltzaldi bat eman zuen atzo Nafarroako Unibertsitatean, eta han esan zuen futbola «erlijio moderno baten traza» hartzen ari dela. «Denborapasa izatetik ukitu erlijiosoko ekitaldi soziala izatera bihurtu da. Beldurra ematen du horrek».

Marseille liderrak partidu erraza dauka bihar

Gaur eta bihar jokatuko da Frantziako Lehen Mailako 24. jardunaldia, eta Marseille liderrak partidu erraza du, Toulouse azkenurrekoaren etxean jokatuko duelako. Gaurko partiduak: Sochaux-Le Havre, Monaco-Rennes, Lyon-Nantes, Girondins-Bastia, Lorient-Montpellier, Lens-PSG. Bihar: Nancy-Metz eta Toulouse-Marseille.

Denilson Romara joan nahian

Atzo Italiako Corriere dello Sport egunkariak zioenez, Denilson de Oliveira erdi-lari brasildarra ez dago gustura Betisen, eta, bi-tartekari batez bidez, Roma klubari eskaitza egin dio: 3.500 milioi pezeta ordainduko lituzke Romak.